

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Elizalde kontseilariak Mugiron Larraungo Udalaren egoitz berriaren inaugurazioan parte hartu du

*Orain arte Nafarroako Gobernuaren jabetza zen Gabari Etxean dago kokatua, udaletxea bihurtzeko dohaintzan eman dela*

Osteguna, 2018.eko abenduak 27

Landa Garapeneko, Toki Administrazioiko eta Ingurumeneko kontseilariak, Isabel Elizalde, gaur goizean Mugiron Larraungo Udalaren egoitz berriaren inaugurazioan parte hartu du. Birgaitu berri den Gabari Etxea / Casa Gabari eraikinan kokatua dago, orain arte Nafarroako Gobernuaren jabetza zena eta dohaintzan eman dena udaletxea bihurtzeko.



Elizalde kontseilaria eta parte hartu duten besteak, Udalaren egoitz berri aurrean

Ekitaldian Elizalde kontseilariak Larraungo alkatea den José Javier Barberenari eman dizkio Araneko armari markoztatu bat, eta "el Noble" bezala ezaguna zen Carlos III.ak 1397 urtean Larraungo biztanlei emandako pribilegioaren faksimile bat.

Udalaren egoitza izateaz gain, eraikin berrian Landa Garapeneko Sailaren bulegoa izango da. Bulego horretan Nekazaritza eta Abeltzaintza arloekin lotutako prozedurak eta kontsultak egingo daitezke.

Eraikinaren birgaitze lanak 2011 urtean hasi ziren eta besteak beste egiturazko indartzea, beheko solairuen bulegoak eraikitzea,

fatxadetako sarrerak burutzea, estaldurak indartzea eta igeltserotza lanak izan dira, aire girotua, elektrizitatea eta iturgintza instalazioak burutzeaz gain. Gastua 404.025 eurokoa izan da, horietatik 126.354 Toki Inbertsioen Planak (TIP) lagunduta.



Kontseilariak eta alkateak armaria eta faksimile erakusten dituzte